

II. Argazki Lehiaketa San Juan jaiak

Artgazki argazki taldeak eta Arrasateko udaletxearen laguntzarekin antolatuta.

GAIA: San Juan jaiak. Argazkiak 2016ko San Juan jaietan ateratakoak izan beharko dira.

IZEN-EMATEA: DOHAINEZKOA eta irekia. Artgazki argazki taldeko kide eta zuzendaritzako kideak lehiaketan parte hartu ahal izango dute, beti ere, epaimahaiko kideak ez badira.

TEKNIKA, FORMATOA ETA ARGAZKI KOPURUA:

Argazkiak koloretan edota txuri-beltzean izan daitezke.

Ezin izango dira inolako oinarrietan muntatu, ezta kiribilduta aurkeztu. Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utziko ditu manipulaturik egon daitekeen edozein argazki (elementu bisualak gehitu, kendu edota mugitzen badira).

Bi kategoria egongo dira: 15 urte azpikoak (15 urtekoak barne) eta 16 urtetik gorakoak.

Gehienez 2 argazki aurkeztu ahal izango dira. Argazkiak helbide honetara bidali behar dira: lehiaketak@artgazki.org, 2016ko ekainak 27ko gaueko 12ak baino lehenago.

Argazkiekin batera beste datu hauek bidali behar dira: Egilearen izen-abizenak, helbide elektronikoa, telefono zenbakia eta argazki bakoitzaren izenburua. 16 urte baino gutxiago izan ezker, kategoria ere adierazi beharko da.

Egilea aurkeztutako argazkien egile bezala aitortuko da.

ARGAZKIEN AUKERAKETA ETA EPAIA:

Epaimahaiak eskubidea izango du oinarri hauek betetzen ez duen edozein lan alde batera uzteko. Baita lehiaketatik kanpo uzteko gustu txarreko edota argazki erasotzaileak.

Epaimahaia osatuko duten pertsonak adituak izango dira argazkigintzan eta arte lanetan. Irabazleen aukeraketa San Juan jaien osteko astean egingo da.

Sariak uztailak 8an entregatuko dira, Kajoi tabernan arratsaldeko 7retan.

ESKUBIDEAK:

Antolatzaileek, Artgazki, ziurtatzen dute jasotako datuekin erabilera zuzena egingo dutela, LOPD 15/1999 lege organikoak esaten duenaren arabera.

Aurkeztutako lanak Artgazki taldearen eskuetan geratuko dira, bai erakusketa eta dibulgazio lanetan hainbat euskarrietan editatu ahal izango dituelarik, beti ere egilearen izena aipatuz.

Antolatzaileek lehiaketan aurkeztutako argazkiak Arrasateko udaletxeari utzi diezaioke. Hauek ezingo die beste hirugarren bati argazkiak utzi egileen baimena izan gabe.

Lehiaketan parte hartzeak oinarrien onarpena adierazten du.

SARIAK:

Argazki onenak:

1. saria: 300 euro eta garaikurra.
2. saria: 150 euro eta garaikurra.
3. saria: 100 euro eta garaikurra.

15 urte azpiko kategorian:

1. saria: Argazki kamara bat.
2. saria: Argazki kamara bat.

Argazki originalari saria: 100 euro.

Parte-hartzaile guztien artean 2 pertsonentzako Arteaga jatetxean afari bat zozketatuko da.